

EGUNEKO AHOLKUA

18. AHOLKUA: ONTZIAK: NON UTZI BEHAR DITUT PILAK, SENDAGAIAK ETA BONBILLAK?

Pilak

○ Pilak sortze-puntuetan (supermerkatuetan, etxeko tresnen dendetan, bitxi-dendetan, erloju-dendetan, argazki-dendetan) jarritako edukiontzietan, kalean jarritako berariazko edukiontzi horietan era bereizian utz daitezke (pila handiak eta botoi-itxurako pilak) baita Garbiguneetan ere.



○ Botoi-itxurako pilak: Lehendabizi, litiozko pilak bereizten dira eta baimendutako segurtasun gordetegi batera bidaltzen dira. Gainerakotik, merkurioa berreskuperatzen da eta berriro komertzializatzen da; Altzairuzko karkasak altzairutegietara bidaltzen dira birziklatzeko; Frakzio fina metalurgia-planta batera bidaltzen da zilarra lortzeko; Beste metalak zepa beirakara batean geldotzen dira.

○ Pila eta metagailu prismatikoak: Lehendabizi, berun/azidozko metagailuak bereizten dira eta baimendutako kudeatzaileetara bidaltzen dira. Gainerakoa ere baimendutako kudeatzaile batera bidaltzen da zink, kadmio eta beruna lortzeko; Polietilenoa eta papera energetikoki balioa handitzeko; Beste metalak geldotzen dira.

Sendagaiak

Hondakin hauek horretara egokituta dauden edukiontzietan jarriko farmacia eta anbulategietan, Garbigunek edota bilketa zerbitzu espezifiko baten bitartez jasoko direlarik.

○ Iraungitako botikak, behar ez dituzun botikak, botiken kutxak eta ontzi hutsik, botikaren blisterrak, flaskoak edo kutxak utz daitezke.

○ Orratzak, termometroak, erradiografiak, gasak, produktu kimikoak edo pilak ezin daitezke utz.

○ Botikak sailkatu ondoren, honela kudeatzen dira: beira, plastiko eta kartoizko ontziak birziklatu egiten dira; gainerakoak erre egiten dira osasun-hondakinekin batera.

○ ONURAK:

○ puntuan uztea oso inportantea da, bi arrazoiengatik: ingurumena eta osasuna.

○ Ingurumenari dagokionez, ontzi hutsik edo hondarrekin zaborontzira edo hustubidetik ez badituzu botatzen, ingurumenarekiko kalteak saihesten dituzulako. Osasunari dagokionez, iraungitako botikak edo aspilditik erabiltzen ez dituzunak etxetik kentzen badituzu, kontsumoak eratorritako istripuak, kontrolik gabeko automedikazioa saihesten dituzulako eta aldi berean, botikaren erabilera arduratsua bultzatzen duzulako.



Erradiografiak

○ PUNTU BERDE MUGIKOR-ean eta Garbigune-n utziko dira.

- Mugarik Gabeko Farmazilariak GKEak bilketa-kanpaina egiten du. Erradiografiek zilar-gatza dute eta, era ez-poluitzailean birziklatuz gero, erauzi eta merkatuan sal daitezke, prezio ofizialean. Lorturiko diruarekin laguntza humanitarioko hainbat proiektu egiten dituzte.
- Erradiografietako zilar-gatzek lurzorua nahiz urak poluitzeko ahalmen handia dute eta, berreskuratzen ez badira, zabortegetan pilatzen dira eta bere balio ekonomikoa galdu egiten da.
- Euskal Autonomia Erkidegoan 417.000 plaka sortzen dira urtero.

Bonbillak

- Orokorrean, etxeko hondakin arriskutsuak biltzen dituen en el PUNTO VERDE MOVIL eta Garbiguneetan utz daitezke.
- Leroy Merlin-ek bere dendan duen Birziklatze Puntuan, burdindendak bezalako saltegietan, etab.
- Jaso ondoren, tratatzeko instalazioetara bidaltzen dira merkurioa, poluzio handia sortzen duen metal bat, beira eta metala berreskuratzeko.
- Birziklatzeko instalazioetan bereizi egiten dira zorroak (txatarrarekin batera birziklatuko dira), beira (birziklatu egiten da) eta merkurio-hautsa (destilatu egingo da, % 100 purua den merkurioa lortzeko).